

ANIMALIEN ELIKADURAREN ARLOKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNARI BURUZKO GOGOETA

Pentsuen segurtasuna ezinbestekoa da elikagaien segurtasuna bermatzeko. Animalien elikadura elikagaien segurtasunari buruzko Europako sisteman integratzea elikagaiei buruzko legeria orokorraren giltzarri da. Araudi horrek "Abeletxetik mahaira" izeneko printzipioa ezarri zuen. Printzipio horren **ikuspuntua da animalien elikadura etapa garrantzitsua dela elikakatearen hasieran.**

PENTSUEN HIGIENEA: 183/2005 ARAUDIA AZTERTZEA

Zer ziren araudi horren helburuak?

- Animalien elikadura arloko sektorean esku hartzen duten **eragile guztien erregistroa** derrigorrezkoa bihurtzea.
- **Animalien elikadura arloko sektoreko enpresetan aplikagarriak diren** eta 95/69/CE Zuzentarauaren aplikazio-eremutik kanpo zeuden **baldintzak ezartzea.**
- Pentsuen ekoizpen- eta erabilera-etapa guztietan **praktika egokiak aplikaraztea.**
- **APPCC printzipioak integratzea** animalien elikadura arloko sektoreko enpresentzat, (lehen mailako ekoizpenaren esparruan gertatzen direnak salbu).
- Animalien elikadura arloko sektoreko ustiatzaileei ezartzea **finantza-bermea emateko beharra**, euren jarduerarekin loturiko arriskuak estaltze aldera.



Zer emaitza nagusi antzeman daitezke ezarri zenetik?

- **Establezimenduen Erregistro nagusia sortu da animalien elikadura arloko sektorean.** Bertan, [183/2005 zenbakiko Araudiaren](#) (EB) aplikazio-eremuan dauden establezimenduak jasota daude, eta horien zenbaki-sistematika [821/2008 Errege Dekretuan](#) ezarrita dago. Erregistro horretan, hirugarren herrialdeetatik pentsuak inportatzen dituzten establezimenduak ere jasota daude.
- **Pentsuen fabriketan APPCC sistemak ezarri dira, eta animalien elikakatearen gainerako eragileek zehaztu egin dituzte babeserako alde zurrerako baldintzak edo planak eta/edo APPCC sistemak.** Araudia indarrean jarri zenetik, animalien elikadura arloko sektoreak lanean dihardu baldintza horiek bete eta APPCC autokontrol sistema ezartzeko, pentsu fabrika batean sor litezkeen arriskuak kudeatze aldera.
- **Kontrol Puntu Kritikoak (KPK) sinplifikatzea:** hasiera batean, APPCC sistemak aplikatzerakoan, KPK ugari identifikatzen ziren. Kontuan hartu behar da ez dela halako gehiegi izan behar, horrek ez baitu esan nahi pentsuaren gaineko kontrol gehiago dagoenik, alderantziz, kontrol horiek guztiak barne hartzea oso zaila dela adieraz diezaguke, eta eguneroko sistemaren kudeaketak eraginkortasun txikia izan dezake.

ANIMALIEN ELIKADURAREN ARLOKO ELIKADURAREN SEGURTASUNARI buruzko gogoeta



- **Kutsadura gurutzatuaren kontrola estandarizatzea eta hobetzea:** aurrerapausoak eman dira pentsuen fabrika batean gerta daitekeen kutsadura gurutzatua baloratzeko jarraitzen diren metodo eta prozeduretan. Jakin beharra dago zergatik egiten den horrela, eta lortutako emaitzak baloratu eta ulertu behar dira, instalazioetan gertatzen den kutsadura gurutzatua ahalik eta gehien murrizteko.
- **Praktika egokien gidak egin dira:** [APPCCri buruzko gidak](#) oso bitarteko egokiak dira animalien elikakateko higie-baldintzak nola aplikatu behar diren jakinarazteko eta kontzeptuak homogeneizatzeko eragile eta kontrol erakundeen artean.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 2005. urtean, gida bat egin zen EAEko pentsuen fabriketan APPCC sistemen ezarpena babesteko, eta 2013. urtean berrikusi egin da. Horren ondorioz, [gida berri bat argitaratu da](#), eta bertan, APPCC kudeaketa-koadroa eta babeserako alde aurretiko baldintzen edo planen edukiak sinplifikatu dira ([Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitatearen Zuzendaritza](#)).

- **Animalien Elikadura arloko Alerten Sarea (SILUM) hobetzea:** alerta-sare horri esker, administrazioen arteko denbora errealeko komunikazioa egon daiteke, izan ere, autonomia erkidegoek egiten dituzten jakinarazpenen datuak ikus daitezke. Abian jarri zenetik, informazioa sartzeko eta sailkatzeko prozesua hobetu da, eta horri esker, alerten edo informazio-jakinarazpenen kudeaketan hobekuntza egon da, koordinazioari eta egin beharreko jardueri dagokienez.
- **Animalien elikakateko eragile guztiei egindako kontrola hobetu eta handitzea:** 183/2005 Araudia argitaratu aurretik zegoen ikuskapenaren presioa pentsuen fabriketan ezartzen zen gehienbat, eta gaur egun, kontrola ikuspuntu integral

batetik bideratzen da. Kontrolak egiten zaizkie lehengaien hornitzaileei, bitartekoei, biltegizainei, etab., hau da, amaierako pentsuaren segurtasunean parte hartzen duten eragile guztien ikuspuntutik egiten dira kontrolak.

Espanian, [Hainbat Urtetarako Kontrolerako Plan Nazionala dago, une honetan 2011-2015 aldirako indarrean dagoena](#), eta plan horretan, animalien elikadurarekin loturiko kontrolerako programak jasota daude. Espanian autonomia erkidegoek aplikatzen dute, euren eskumenen esparruan.

ETORKIZUNeko JOERAK ANIMALIEN ELIKADURAREN ARLOKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN

IRAUNKORTASUNA

Animalien elikaduraren arloko industria epe ertain eta luzean iraunkorra izan dadin, 4 euskarritan oinarritu beharko litzateke (2013ko FEFAren Biltzarra): **pentsu ziurren hornikuntza; pentsuen industriaren eta abeltzaintzako ustiatzearen lehiakortasuna; baliabideen eraginkortasuna; eta pentsuen kate arduratsua.**

Iraunkortasuna ez da ingurumen-eraginetara soilik mugatzen, izan ere, pentsuen industria baten betebeharrekin lehengaien hornikuntza eta zuzkidura arduratsua ere jaso behar dute. Horrez gain, sektore emankor baten iraunkortasunaren alde egin eta pertsona eta animalien osasuna bermatu behar dute.



ANIMALIEN ELIKADURAREN ARLOKO ELIKADURAREN SEGURTASUNARI buruzko gogoeta



SENDAGAI-PENTSUAK

Animaliei albaitaritzako sendagaiak behar bezala emateko hainbat bide erabil daitezke, hala nola, txertoak, zuzenean ahotik sartuta edo "sendagai-elikagaien" bidez. Sendagai-pentsuak agindu, fabrikatu, eman eta erabiltzearen esparru juridikoak 20 urte baino gehiago dauzka, eta horregatik, **legeria eguneratu eta bateratu behar** izan da animalien osasun-maila altua are gehiago hobetzeko eta, aldi berean, ohiko merkatuan baldintzen berdintasuna bermatzeko.

MIKROBIOEN AURKAKO ERRESISTENTZIAK

Animalien osasungintzan eta giza osasunean erabiltzen diren antibiotikoen aurrean hainbat mikroorganismok dituzten **erresistentziak** gero eta handiagoak dira. Goranzko joera hori oso nabarmena da, **eta komunitate zientifikoa oso kezkatuta dago. Gainera, zalantzak sortu dira hemendik gutxira antibiotikoek ez ote duten eraginkortasuna galduko, botika horiek behar ez bezala agindu eta erabiltzearen ondorioz..**

[Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak \(EFSA\) duela gutxi egindako azterlan baten arabera](#), Europar Batasunean ohikoa da *Salmonellaren* eta *Campylobacterren* mikrobioen aurkako

erresistentzia eta erresistentzia-adierazleak *Escherichia colin* eta *Enterococcus setan*, elikagaietan eta kontsumorako erabilitako animalietan.. Aztertutako bakterio zoonotikoen artean, maiz ikusi da ampizilina, sulfonamida eta tetraziklina bezalako antibiotikoekiko erresistentzia.

GEOak

EBko GEOak ez diren pentsu konposatuen merkatuak pentsu konposatuen merkatu guztiaren % 15 baino gutxiago osatzen du, baina alde handiak daude herrialdeen artean. Zehazki, abereen merkatuko kuotei dagokienez, GEOak ez diren pentsu konposatuen motor nagusia oilategiko hegaztien sektorea da (% 17). Ondoren, behi-azienda (% 9) eta txerri-azienda (% 2) daude.

Estatu kide batzuek (Austria, Frantzia, Alemania) legezko neurriak hartu dituzte GEOak askatasunez etiketatu ahal izateko, eta enpresa batzuk animalia-jatorriko produktuak etiketatzen hasi dira.

EBn hainbat lege daude transgenikoak askatasunez etiketatzeko, eta Batzordetik, Osasuna eta Kontsumitzaileak Zuzendaritza Nagusiaren bidez, "GEOrik gabe" etiketatzen borondatezko erregimen berrien edo dagoeneko zeudenen irismena aztertzen ari dira, egokia bada, legeria horiek bateratze aldera.

ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK

- [Animalien Elikadurari buruzko III. Biltzarra: elikagaien segurtasuna eta ekoizpena -ELIKA-](#)
- [Animalien elikaduran dauden substantzia kaltegarriak buruzko fitxak-ELIKA](#)
- [Pentsuen arrisku mapa-ELIKA](#)
- [EPEA-Euskadiko Pentsu Ekoizleen Elkarte](#)
- [Elikagaien Kalitatearen Zuzendaritza-Eusko Jaurlaritza](#)

ANIMALIEN
ELIKADURAREN ARLOKO
ELIKADURAREN
SEGURTASUNARI buruzko
gogoeta



Animalien elikadurari
buruzko informazio
gehiago nahi duzu?

http://www.elika.net/es/alimentacion_animal_home.asp

